



## IKASTARO OSAGARRIA

### TEORIA KRITIKOA II: GIZARTE MUGIMENDUAK (1. ED)

#### INFORMAZIO OROKORRA

---

**IKASTURTEA:** 2021/2022

**ARLOA:** Gizarte eta Lege Zientziak

**KREDITUAK:** 4 ECTS kreditu (\*)

**MATRIKULA TASA:** 30 € (Asegurua: 4 €, galdetu)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Igor Ahedo / Iraide Alvarez

#### AURKEZPENA

---

Gaur egun, botere politikoak hautsi egin du herritarrekiko harremana, eta ez die jaramonik egiten haien eskakizun kolektiboei, are gutxiago funtsezko eraldaketa sozialak proposatzen dituztenean. Arlo politikoak botere ekonomiko eta finantzarioekiko mendekotasuna areagotu du, horien askatasun ekonomiko osoa gara ditzaten bermatzeko eta babesteko. Horrek demokraziaren hustuketa dakar, baita benetan operatiboak diren botereen bilakaera autoritarioa. Botere horiek bloke trinko gisa aurkezten dira, modu gogorrean. Bloke horren diskurtsoak eta kultur politikak eraldaketa sozialaren ezintasuna aldarrikatzen dute.

Mezuek – eta horiekin batera doazen praktikek – esaten digute garai honetan desberdintasunak eta kudeaketa autoritarioa ez direla krisi baten adierazleak, baizik eta sistemaren oinarriak. Hori naturala litzateke, eta, beraz, ez luke zentzurik justizia, berdintasun eta demokrazia handiagorantz jotzeko saiakerak.

Egoera horretatik abiatuta aztertu behar ditugu gizarte-mugimenduak.

Zein izan da gizarte mugimenduen prozesu historikoa? Zer noranzko hartu duten? Mugimendu anitzei buruz ari gara, badaude hemengoak eta urrutiagokoak (Hegoamerikakoak, adibidez), zaharrak (langileena) eta ez hain zaharrak (ekologismoa, feminismoa) Mobilizatzeko eta gizartea eraldatzeko gaitasunari eusten ote diote gaur egun? Zein neurritan har dezakete mugimenduek une honetan, aipatu dugun eszenatokian, eraldaketa sozial eta politikorako lidergoa? Ala jarraitzen du lidergo horrek alderdi politikoen esku?

---



## ZURE BILA GABILTZA

---

Aurreko ikasturtean (*Eskubide erradikalak eta neoliberalismo autoritarioa*) adierazi genuen bezala, ez da bokazio akademiko soileko ikastaroa, interesgarria izan badaiteke ere Unibertsitateko ikasleentzat (EHUko ikastaro osagarriaren aitortpena izango du, 4 kredituko baliokidetasunarekin). Militanteei, ekintzaileei, boluntarioei eta gizarte-mugimenduei laguntza eta formazioa ematea da asmoa, baita ikasleak, gazteak zein adinekoak prestatzea ere, ulertu ahal izateko noraino aldatu ahal izango dugun sistema modu kolektiboan eta behetik antolatuta eraginez gero.

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Asmoa da gizarte-mugimenduen funtzionamendua, mugak eta aukerak ulertzeko prestakuntza jaso nahi duten militanteei, ekintzaileei, ikasleei, gazteei edo adinekoei laguntza ematea.

## BALDINTZAK

---

Ez daude

## IRAKASKUNTZA

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2021/10/12-tik 2021/11/18-ra

**EMATEKO TOKIA:** email

**HIZKUNTZA:** Erderaz

## INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA

---

- Plazak mugatuak dira eta izen-ematea eskaera-ordenaren arabera egingo da.
- Izena emateko, matrikula-tasak ordaindu izanaren egiaztatzea bidali behar da (124 euro), izen-abizenekin.
- Kontu-zenbakia:  
IBAN: ES19 2095 0292 - 9232 3908 8081  
BIC: BASKEK28XXX
- Inskripzioari buruzko informazioa nahi izanez gero, bidali mezu bat honako helbide honetara: [pensamientocritico.csc@ehu.es](mailto:pensamientocritico.csc@ehu.es)
- Aurrez izena emateko epea urriaren 1era arte egongo da zabalik [hemen](#).



- Izena emateko epea urriaren 1etik 8ra izango da. Izen-ematea formalizatzeko, abonu-agiria erantsi beharko da [formulario honetan](#) (aldez aurretik aurrez izena eman beharko da)

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** Politika eta Zientzia Saila

**HELBIDEA:** [bit.ly/gizartemugimenduakEHU](https://bit.ly/gizartemugimenduakEHU)

**TELEFONOA:**

**POSTA ELEKTRONIKOA:** [pensamientocritico.csc@ehu.es](mailto:pensamientocritico.csc@ehu.es)

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.